

<i>Código</i>	<i>País</i>	<i>Importe (euros)</i>
342	<i>Somalia</i>	2.176
669	<i>Sri Lanka</i>	2.050
388	<i>Sudáfrica</i>	1.912
30	<i>Suecia</i>	1.188
39	<i>Suiza</i>	1.062
680	<i>Tailandia</i>	2.312
736	<i>Taiwán</i>	2.512
212	<i>Túnez</i>	962
80	<i>Turkmenistán</i>	2.050
52	<i>Turquía</i>	1.388
72	<i>Ucrania</i>	1.618
524	<i>Uruguay</i>	2.238
81	<i>Uzbekistán</i>	2.050
484	<i>Venezuela</i>	1.882
690	<i>Vietnam</i>	2.512
653	<i>Yemen</i>	1.882
94	<i>Yugoslavia (Servia y Montenegro)</i>	1.188
378	<i>Zambia</i>	2.470
382	<i>Zimbabwe</i>	2.470

Zk-2808

AGINDUA, 2003ko apirilaren 16koa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena, euskal enpresen kanpoko ezarpenak sortu eta garatzen laguntzeko Gauzatu-Kanpoko ezarpenak programa arautzen duena.

Gauzatu-Kanpoko ezarpenak programa Ekonomia Sustatzeko Erakunde Arteko Planean definitutako jardura-politiketako bat aplikatzeko tresna gisa eratzen da, euskal enpresak nazioartekotzeari dagokiona aplikatzeko hain zuzen ere.

Merkatuen globalizazio-testuinguruan, ekonomia baten lehiakortasun-maila bere produkzio-sistemak kanpoaldearekin erdiesten duen erlazio-mailak eta sistema horren berrikuntza-ahalmenak —zentzu zabalean ulertuta— zehazten dute. Nazioartekotzea funtsezko lehiakortasun-faktorea da, eta orain inoiz baino gehiago, munduko ekonomiaren globalizazio-prozesuari aurre egin eta honek ekartzen dituen aukerak aprobeztatzeko. Horregatik, esparru honetako ekintza publikoak euskal enpresen eta ekonomiaren nazioartekotze-maila areagotzea izan behar du helburu.

Nº-2808

ORDEN DE 16 de abril de 2003, del Consejero de Industria, Comercio y Turismo, por la que se regula el programa Gauzatu-Implantaciones exteriores, de impulso a la creación y desarrollo de implantaciones de empresas vascas en el exterior.

El Programa Gauzatu-Implantaciones exteriores se constituye como instrumento de aplicación de una de las políticas de actuación definidas en el Plan Interinstitucional de Promoción Económica, concretamente la referida a internacionalización de la empresa vasca.

En un contexto de globalización de los mercados el grado de competitividad de una economía viene marcado por el nivel de interrelación con el exterior alcanzado por su sistema productivo, así como por su capacidad de innovación entendida en sentido amplio. La internacionalización es más que nunca un factor de competitividad esencial para afrontar el proceso de globalización de la economía mundial y aprovechar las oportunidades derivadas del mismo. Por todo ello la acción pública en este ámbito ha de marcarse como objetivo el aumento del grado de internacionalización de las empresas y de la economía vasca.

Helburu hori lortzeko, datozen urteotan nazioartekotze-politika aktiboa egingo da, honako lerro estrategiko hauek jorratuz:

- 1.– Esportazio-oinarria areagotzea.
- 2.– Euskal enpresen nazioarteko dimentsioa garrantzea.
- 3.– Kanpoaldearekin dauden ekonomia- eta merkataritza-harremanen dibertsifikazio geografiko eta sektoriala sustatzea.

Gauzatu-Kanpoko ezarpenak programak bigarren leerroa du ardatz. Gure enpresen nazioarteko jarduera eta horren errentagarritasuna finkatu eta indartzea da helburua. Horretarako, enpresen kanpoko salmentak gehitzera zuzendutako jarduerak bultzatu ez ezik, suspergarriak eta laguntzak emango zaizkie nazioartekotzeko prozesuan jauzi kualitatiboa egin eta esportazioaz bestelako formulak erabiltzeko erabakia hartzen duten enpresei, esate baterako produktiboki kanpoan ezartzeko formulaz baliatzen direnei.

Agindu honek arautzen duen laguntza-programak ekainaren 27ko 121/2000 Dekretuaren xedapenak garatuko ditu. Dekretu horrek ekonomia sustatzeko laguntzak ezartzen ditu. Lehenengo xedapen gehigarrian ahalmena eman dio Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuari hura garatu eta betearazteko behar diren xedapenak eman ditzan.

Horrenbestez, honako hau,

XEDATU DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea ekonomia sustatzeko laguntzak ezartzen dituen ekainaren 27ko 121/2000 Dekretuko 10. artikulua, Gauzatu-Kanpoko ezarpenak programak ezartzen duena, garatzea da. Izan ere, programa horren helburua euskal enpresei finkatzen laguntzea da, kanpo-merkatuko produkzio-inbertsioa areagotuz beren lehiakortasuna eta, horrenbestez, etorkizuneko bideragarritasuna areagotzeko formula gisa.

2. artikulua.– Baliabide ekonomikoak.

1.– Aurreko artikuluan adierazitako helburua betetzeko behar diren baliabide ekonomikoak Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen Legean aurreikusitako Ekonomia Sustatzeko Fondora zuzendutakoetatik aterako dira. Fondo hori Garapenerako Euskadiko Kapital-Sozietateak (SOCADE, SA) kudeatuko du adierazitako arauan ezarritako eran.

Para alcanzar este objetivo se llevará a cabo en los próximos años una política de internacionalización activa mediante las siguientes líneas estratégicas:

- 1.– Aumentar la base exportadora.
- 2.– Desarrollar la dimensión internacional de las empresas vascas.
- 3.– Promover la diversificación geográfica y sectorial de las relaciones económico-comerciales con el exterior.

El programa Gauzatu-Implantaciones exteriores se centra en la segunda de las líneas. Se trata de afianzar y reforzar la actividad internacional de nuestras empresas y la rentabilidad de la misma apoyando, no sólo las actuaciones dirigidas a incrementar sus ventas en el exterior, sino también estimulando y apoyando a aquellas empresas que decidan dar un salto cualitativo en su proceso de internacionalización mediante fórmulas distintas de la exportación como la implantación productiva en el exterior.

El programa de ayudas regulado en la presente Orden desarrolla lo dispuesto en el Decreto 121/2000, de 27 de junio, por el que se establecen distintas Líneas de Ayudas con fines de Promoción Económica, en cuya Disposición Adicional Primera se faculta al Consejero de Industria, Comercio y Turismo para dictar las disposiciones que sean precisas para su desarrollo y ejecución.

En su virtud,

DISPONGO:

CAPITULO I

DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.– Objeto.

La presente Orden tiene por objeto desarrollar el artículo 10 del Decreto 121/2000, de 27 de junio, por el que se establecen distintas líneas de ayudas con fines de promoción económica, que establece el Programa Gauzatu-Implantaciones exteriores, de impulso a la creación y desarrollo de implantaciones de empresas vascas en el exterior, que tiene por objeto apoyar la consolidación de la empresa vasca, aumentando la inversión productiva en el mercado exterior como fórmula para incrementar su competitividad y, por lo tanto, su viabilidad futura.

Artículo 2.– Recursos Económicos.

1.– Los recursos económicos dedicados a la finalidad del artículo anterior procederán de los destinados al Fondo de Promoción Económica, contemplado en la Ley por la que se aprueban los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, que será gestionado por la Sociedad Capital Desarrollo de Euskadi, SOCADE, S.A. de la forma establecida en la citada norma.

2.– Laguntzek dagokien urteko deialdian zehaztutako guztizko kopurua gainditzen badute, administrazio-ebazpen bidez ukatuko dira laguntza horiek. Kopuru horiek ezin izango dute inolaz ere gainditu Euskal Autonomia Erkidegoko ekitaldi bakoitzeko Aurrekontu Orokorretan Ekonomia Sustatzeko Fondora zuzendutako ordainketa- eta konpromiso-kredituen zuziduren batura. Horregatik, programa hau indarrean dagoen bitartean, ekitaldi ekonomikoren batean ares-tian adierazitako kopuru osoa agortzen bada, horren berri jendaurrean azalduko da. Horretarako, Industria Berritzeko eta Garatzeko Sailburuordetzak administrazio-ebazpena emango du, kopurua zein egunetan agortu den adieraziz, eta ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Aurreko ekitaldi ekonomikoan aurkeztu diren eta aurrekontu-ekitaldi bakoitzean emateko ezarritako muga gainditu dutelako laguntzarik jaso ez duten proiektuak, gorago adierazitako eran ukatu bazaie laguntza, hurrengo ekitaldiko Fondoaren baliabideei egotzi ahal izango zaizkie, baldin eta agindu honetan laguntzak jasotzeko ezarritako baldintzak betetzen badituzte. Horretarako, laguntzen eskabidea berriz aurkeztu behar du, baina lehentasunaren ondorioetarako, atzera botatutako lehenengo eskabidearen data hartuko da kontuan.

3.– Laguntzak ordenan emango dira, espedienteak osorik dagoen unearan arabera.

3. *artikulua*.– Erakunde onuradunak.

1.– Industriaren, meatzaritzaren eta/edo eraldakuntzaren arloko ETE guztiek eta aurrekoei loturiko zerbitzu teknikoetakoek eskuratu ahal izango dituzte agindu honek arautzen dituen laguntzak. Ondoko baldintzak betetzen dituztenak joko dira halakotzat:

– Gehienez 250 langile izatea.

– Urteko negozio-kopurua gehienez 40 milioi eurokoa izatea, edo bestela, urteko balantze orokorra gehienez 27 milioi eurokoa izatea.

– Aurreko baldintza horietako bat betetzen ez duen ezein enpresak, edo enpresa batzuek elkarrekin, zuzenean nahiz zeharka, %25etik gorako partaidetzarik ez izatea.

2.– Enpresa txikien eta ertainen artean bereizi behar denean, ondoko irizpideak hartuko dira kontuan enpresa txikitzat jotzeko:

– Gehienez 50 langile izatea.

– Urteko fakturazioa gehienez 7 milioi eurokoa izatea, edo bestela, urteko balantze orokorra gehienez 5 milioi eurokoa izatea.

– Aurreko baldintza horietako bat betetzen ez duten enpresek zuzenean edo zeharka %25etik gorako partaidetzarik ez izatea.

2.– Mediante resolución administrativa se procederá a denegar las ayudas en el caso de que éstas superen la cuantía total de ayudas especificada en la convocatoria anual correspondiente. Dichas cuantías no podrán superar, en ningún caso, la suma de las dotaciones de créditos de pago y de compromiso en los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi de cada ejercicio destinadas al Fondo de Promoción Económica. Por todo ello, mientras se encuentre vigente el presente programa, si en un ejercicio económico se alcanza la cuantía total antes señalada, al objeto de dar publicidad a esta circunstancia, por la Viceconsejería de Innovación y Desarrollo Industrial se emitirá resolución administrativa en la que se señalará la fecha en que se ha producido este hecho, publicándose la misma en el Boletín Oficial del País Vasco.

Los proyectos de inversión presentados en el ejercicio económico precedente, que no hayan obtenido ayudas por excederse del límite establecido para conceder durante cada ejercicio presupuestario y que hayan sido denegados en la forma anteriormente prevista, se podrán imputar a los recursos del Fondo del ejercicio siguiente, siempre que los citados proyectos cumplan con los requisitos establecidos en la presente Orden para la obtención de las ayudas, para lo cual deberán presentar una nueva solicitud, si bien, a los efectos de prioridad se conservará la fecha de la primera solicitud denegada.

3.– La concesión de las ayudas se irá realizando ordenadamente en función del momento en que el expediente esté completo.

Artículo 3.– Entidades Beneficiarias.

1.– Podrán acceder a las ayudas contempladas en la presente Orden cualquier PYME industrial, extractiva, transformadora y de servicios técnicos conexos a los anteriores, entendiéndose por tales aquéllas que cumplan los siguientes requisitos:

– Que emplee a menos de 250 trabajadores.

– Que su volumen de negocio anual no supere los 40 millones de euros, o bien, que su balance general anual no rebase los 27 millones de euros.

– Que no se halle participada directa o indirectamente en un 25%, o mas, por otra empresa o conjuntamente por varias de ellas que no reúna alguno de los requisitos anteriormente expuestos.

2.– Cuando sea necesario distinguir entre empresas pequeñas y medianas, se entenderá por Pequeña empresa aquélla:

– Que emplee a menos de 50 trabajadores.

– Que su facturación anual no exceda de 7 millones de euros o bien, que su balance general anual no exceda de 5 millones de euros.

– Que no se halle participada directa o indirectamente en un 25%, o mas, por empresas que no reúnan alguno de los requisitos anteriormente expuestos.

Goian adierazitakoaren beste edozein interpretazio egiteko, 1996ko apirilaren 3ko Batzordearen 96/280/CE Gomendioan (EEAO, L107, 1996ko apirilaren 30ekoa) enpresa txiki eta ertainen definizioari buruz ezarritakoa edo Gomendio hori ordezkatu edo aldatzeko ematen diren xedapenak hartuko dira kontuan.

3.– Dena den, ETEek Euskal Autonomia Erkidegoan erregistratuta izan beharko dute sozietatearen izena.

4. artikulua.– Baztertutako erakundeak.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoaren Erakunde Administrazioa osatzen duten erakundeak eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzako Euskal Sarekoak diren Teknologia Ikerketako erakundeak ezin dira laguntza hauen onuradun izan.

2.– Agindu honek arautzen dituen laguntzak enpresa onuradunei eman eta ordaindu aurretik, buruturik egon behar dira Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek antzeko laguntzak edo diru-laguntzak enpresa horiei itzularazteko edo haien zioz zehapenak ezartzeko oraindik izapidetze-fasean dauden prozedura guztiak.

3.– Europar Batasunak siderurgiari (CECA ez), zuntz sintetikoari eta automobilgintzari buruz emandako sektoreko araudi egokien pean egongo dira agindu honetan araututako laguntzak.

5. artikulua.– Laguntza jaso dezakeen inbertsioa.

1.– Laguntzen zenbatekoa kalkulatzeko, laguntza jaso dezaketean inbertsioztat joko dira enpresa onuradunek beren produkzioa Europar Batasunaz kanpo ezartzeko egindako proiektuak, produkzio-planta berri bat irekitzean, egungo ezarpenak handiagotzean edo atzerriko sozietateak erostean dautzanak, betiere proiektu horietan duten partaidetza gehiengoduna bada, inbertsioaren helburu den herrialdeko lege-aginduz ezinezkoa denean izan ezik. Higiezin, finantza, aseguru eta defentsari dagozkien sektoreetara zuzendutako inbertsioek ezin dute laguntzarik jaso. Laguntzen zenbatekoa kalkulatzeko, ez dira inoiz kontuan hartuko proiektuek izan ditzaketean edozein motatako zergak. Ez da inola ere lagungarritzat joko ordezkapenerako inbertsioa.

2.– Produkzio-planta berriak irekitzean edo egungoak handiagotzean dautzan proiektuei dagokienez, laguntza jasoko duen ezarpenaren aktiboari gehituko zaizkion aktibo finko berriak eskuratzeko izango da laguntza jaso dezakeen inbertsioa, eta aktibo horiek, agindu honi eta hori garatzen duten xedapenei jarraiki ezargarriak direnetaz gain, ondoren zehazten diren baldintzak bete behar dituzte:

a) Abenduaren 20ko 1643/1990 Errege Dekretuan bildutako Kontabilitate Plan Orokorrak ezarritako definizioaren arabera kategoria edo epigrafe hauetan edo inbertsioaren helburu den herrialdeko Kontabilitate

Para cualquier otra interpretación de lo señalado anteriormente, se tendrá en cuenta lo establecido en la Recomendación 96/280/CE de la Comisión, de 3 de abril de 1996, sobre la definición de pequeñas y medianas empresas (DOCE, L107, de 30 de abril de 1996), o las disposiciones que la sustituyan o modifiquen.

3.– En todo caso, las PYMES deberán tener su razón social en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Artículo 4.– Entidades excluidas.

1.– Quedan excluidas como beneficiarias las Entidades que constituyen la Administración Institucional de la Comunidad Autónoma, y, además, las Entidades de Investigación Tecnológica pertenecientes a la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación.

2.– La concesión y, en su caso, el pago a las empresas beneficiarias de las ayudas reguladas en la presente Orden quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimiento de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma naturaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euzkadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

3.– Las ayudas reguladas en la presente norma estarán sometidas a las normativas sectoriales pertinentes emitidas por la Unión Europea relativas a la siderurgia (NO CECA), las fibras sintéticas y la industria automovilística

Artículo 5.– Inversión susceptible de apoyo.

1.– Se consideran susceptibles de apoyo a efectos del cálculo de las ayudas los proyectos de implantación productiva fuera de la Unión Europea acometidos por las empresas beneficiarias y consistentes en la apertura de una nueva planta productiva, ampliación de implantaciones existentes o adquisición de sociedades extranjeras, siempre que su participación en los mismos sea mayoritaria, salvo imperativo legal del país destino de la inversión, excluyéndose las inversiones dirigidas a los sectores inmobiliario, financiero, de seguros y de defensa. A los efectos del cálculo de las ayudas no se tendrán en cuenta, en ningún caso, los impuestos, sean de la índole que sean, que puedan afectar a dichos proyectos. En ningún caso se entenderá susceptible de apoyo la inversión de sustitución.

2.– Respecto a los proyectos consistentes en la apertura de nuevas plantas productivas o ampliaciones de las ya existentes, será susceptible de apoyo la adquisición de activos fijos nuevos que se incorporen al activo de la implantación objeto de ayuda y que cumplan, además de los que fueran de aplicación en virtud de lo dispuesto en la presente Orden y sus disposiciones de desarrollo, los requisitos que a continuación se indican:

a) Que se trate de alguna de las siguientes categorías, según la definición que, al efecto, establece el Plan General de Contabilidad, recogido en el Real Decreto 1643/1990 de 20 de Diciembre, o su equivalente se-

Planaren araberrako baliokideetan dauden aktiboak izatea:

- 212 Jabetza industrial eta patenteak
- 215 Informatika-aplikazioak.
- 220 Lurra eta ondasun naturalak.
- 221 Eraikuntzak.
- 222 Instalazio teknikoak.
- 223 Makineria.
- 224 Tresneria.
- 225 Beste instalazio batzuk.
- 227 Informazio-prozesuetarako ekipoak.

«Lurra eta ondasun naturalak» eta «Eraikuntzak» epigrafeetako inbertsioaren gehieneko kopurua laguntza jaso dezaketen gainerako aktiboen baturaren berdina izango da. Gehieneko kopuru hori gairiduz gero, soberako inbertsioa ez da laguntza jaso dezakeen inbertsio gisa zenbatuko laguntzak zehazteko.

Dena den, aktiboek zuzeneko lotura izan behar dute enpresaren helburu soziala den jarduerarekin.

Aktiboen prezioztat hauen balio «garbia» hartuko da, hau da, fakturatutako kopurua, Balio Erantsiaren gaineko Zerga edo inbertsioaren helburu den herrialdeko baliokidea kendu eta gero.

b) Aktiboak lehenengo aldiz erabili edo abian jartzea. Erabilitako eraikin edo bestelako eraikuntzak eskuratzen badira, berriak balira bezalako tratamendua emango zaie.

c) Gutxienez hiru urteko amortizazio-aldia ezarrita izatea; gutxienez bost urte iraun beharko dute enpresaren aktiboan.

d) Aktiboak, oro har, inori kontraprestazioarekin edo kontraprestaziorik gabe lagatakoak ez izatea.

e) Aktiboak, oro har, enpresa eskatzaileak berak fabrikatutakoak ez izatea (eta inoiz ere ez da zenbatuko aktiboek dakartzaten kanpo-kontsumoetatik gorako baliarik).

f) Bazkideren batek egindako kapitalerako gauzak ekarpenek ezin izango dute laguntzarik jaso.

g) Finantza-errentamendu bidez finantzatutako inbertsioa laguntza jaso dezakeen inbertsioztat hartuko da, betiere enpresak berriaz hartzen badu dagokion erosteko aukera betetzeko konpromisoa.

h) Laguntza jaso dezaketen aktibo inmaterialak onuradunaren establezimenduan soilik ustiari behar dira, aktiboko elementu amortizagarritzat joko dira, hirugarren bati erosi behar zaizkio merkatuko baldintzetan eta gutxienez bost urte egin behar dituzte enpresaren aktiboan.

gún Plan Contable del país destino de la inversión, en los epígrafes siguientes:

- 212 Propiedad Industrial y Patentes
- 215 Aplicaciones informáticas.
- 220 Terrenos y Bienes naturales
- 221 Construcciones.
- 222 Instalaciones técnicas.
- 223 Maquinaria.
- 224 Utillaje.
- 225 Otras instalaciones.
- 227 Equipos para procesos de información.

La inversión en «Terrenos y Bienes naturales» y «Construcciones» se considerará por una cuantía máxima igual al resto de los activos susceptibles de apoyo. En el caso de superar dicha cuantía máxima, la inversión excedente no computará como inversión susceptible de apoyo a los efectos de determinación de las ayudas

En todo caso, los activos deberán estar directamente relacionados con la actividad que constituye el objeto social de la empresa.

Se considerará como precio de los activos su valor «neto», entendiéndose como tal el importe facturado una vez deducido el Impuesto sobre el Valor Añadido, o equivalente en el país destino de la inversión.

b) Que sean utilizados o entren en funcionamiento por primera vez. En el caso de que se trate de la adquisición de edificios y otras construcciones ya usados, tendrán el tratamiento de nuevos.

c) Que tengan establecido un período mínimo de amortización de tres años, debiendo permanecer, al menos, cinco años en el activo de la empresa.

d) Que, con carácter general, no se hallen cedidos a terceros, con o sin contraprestación.

e) Que, con carácter general, no hayan sido fabricados por la propia empresa solicitante (y, en cualquier caso, nunca se computarán por un valor superior al de los consumos externos que incorporen).

f) No serán susceptibles de apoyo las aportaciones a capital en especie por parte de alguno de los socios.

g) La inversión, financiada mediante arrendamiento financiero, será considerada susceptible de apoyo, siempre y cuando la empresa se comprometa expresamente a ejercitar la opción de compra correspondiente.

h) Los activos inmateriales subvencionables deberán ser explotados exclusivamente en el establecimiento del beneficiario, serán considerados elementos de activo amortizables, serán adquiridos a un tercero a las condiciones de mercado y deberán permanecer en el activo de la empresa un período mínimo de cinco años.

3.– Ezarpen-proiektua egungo enpresa bat erostean datzanean, ondoko balioetatik txikiena hartuko da laguntza jaso dezakeen inbertsioztat:

a) Aktibo finkeen balio garbia; aktibo finkoak artikuluko honen aurreko puntuan zerrendatutako Kontabilitate Plan Orokorreko kategoriak izango dira, erositako enpresaren balantzean azaltzen direnak hain zuzen ere.

b) Egun existitzen den enpresa erosteko benetan itundutako eta ordaindutako prezioa.

4.– Laguntza jaso dezaketzen proiektuek gutxienez 120.000 euroko inbertsioa egin beharko dute artikuluko honen 2. puntuan zerrendatutako Kontabilitate Plan Orokorreko kategorietan eta, luzeen jota ere, inbertsioa 36 hilabeteko epean gauzatu beharko da. Gutxienezko inbertsioa kalkulatzeko, euskal enpresak proiektuan duen partaidetzaren proportzioan zenbatuko da.

II. KAPITULUA

LAGUNTZEN MODALITATEA ETA EZAUGARRIAK.

6. artikulua.– Laguntzen modalitatea.

Agindu honen esparruan emango diren laguntzak aurrerakin itzulgarriak izango dira. Izan ere, egin beharreko inbertsioen proportziozko laguntzak emango dira eta linealki itzuli beharko dira inbertsio proiektua amaitu eta hurrengo ekitalditik hasita bost urteko epean.

7. artikulua.– Aurrerakin itzulgarrien ezaugarriak.

Aurrerakin itzulgarri moduan emango diren laguntzak laguntza jaso dezakeen inbertsioaren %30erainokoak izan daitezke, aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera. Ezin izango da inolaz ere 1.500.000 euroko kopurua gainditu.

8. artikulua.– Laguntzen zenbatekoak.

Enpresa onuradunek, agindu honen 3. artikuluan xedatutakoaren arabera, honako laguntza hauek eskuratu ahal izango dituzte:

1.– Laguntza jaso dezakeen inbertsioaren %30eko aurrerakin itzulgarriak enpresa txikientzat.

2.– Laguntza jaso dezakeen inbertsioaren %30eko aurrerakin itzulgarriak enpresa ertainentzat.

9. artikulua.– Laguntzak metatzea eta mugak.

Agindu honetan araututako laguntzak eta xede berekin beste herri-administrazio batzuek edo erakunde pribatuek emandako laguntzak bateragarriak izango dira, baldin eta laguntza guztien baturak Europar Batasunak ezarritako mugak gainditzen ez baditu. Halako laguntzarik jasoz gero, horren berri eman behar

3.– Cuando el proyecto de implantación consista en la adquisición de una empresa ya existente se considerará inversión susceptible de apoyo el menor de los siguientes valores:

a) El valor neto de los activos fijos, entendiéndose por tales las categorías, del Plan General de Contabilidad, enumeradas en el punto anterior de este artículo y que aparezcan en el balance de la empresa adquirida.

b) El precio efectivamente pactado y desembolsado por la adquisición de la empresa existente.

4.– Los proyectos susceptibles de apoyo deberán alcanzar, como mínimo, una inversión de 120.000 euros en las categorías del Plan General de Contabilidad enumeradas en el punto 2 de este artículo, debiendo materializarse la inversión en un período máximo de 36 meses. A efectos de cálculo de la inversión mínima, ésta se computará en proporción a la participación de la empresa vasca en el proyecto.

CAPITULO II

MODALIDAD Y CARACTERÍSTICAS DE LAS AYUDAS.

Artículo 6.– Modalidad de las ayudas.

Las ayudas a conceder en el marco de la presente Orden adoptarán la forma de Anticipos reintegrables consistentes en la concesión de ayudas, proporcionales a las inversiones a realizar, que habrán de ser reintegradas linealmente en un periodo de cinco años a partir del ejercicio inmediatamente posterior a la finalización del proyecto de inversión.

Artículo 7.– Características de los anticipos reintegrables.

Las ayudas a conceder en concepto de anticipos reintegrables podrán ascender hasta el 30% de la inversión susceptible de apoyo, según lo dispuesto en el artículo siguiente, con un límite que, en ningún caso, podrá superar los 1.500.000 euros.

Artículo 8.– Cuantías de Ayudas.

Las empresas beneficiarias, según lo dispuesto en el artículo 3 de la presente Orden, podrán optar a las siguientes ayudas:

1.– Anticipos reintegrables del 30% de la inversión susceptible de apoyo para pequeñas empresas.

2.– Anticipos reintegrables del 25% de la inversión susceptible de apoyo para medianas empresas.

Artículo 9.– Acumulación y límites de las Ayudas.

Las subvenciones otorgadas por otras Administraciones Públicas o por entidades privadas que tengan el mismo objeto que las recogidas en la presente Orden serán compatibles en cuanto no superen en su conjunto los límites establecidos por la Unión Europea, debiéndose notificar dichas ayudas a la Dirección de Internaciona-

zaio Nazioartekotze Zuzendaritzari. Adierazitako mugak gaindituz gero, soberakinari dagokion kopurua kenduko zaio agindu honen babespean jasotako laguntzari.

III. KAPITULUA

PROZEDURA

10. artikulua.– Prozeduraren hasiera.

Agindu honek araututako laguntzak urtean behin egingo diren deialdien bidez iragarriko dira eta publikitate, lehia eta objektibotasunaren printzipioei jarraituz emango dira.

Industria Berritzeko eta Garatzeko sailburuordeak egingo du deialdia eta bertan adieraziko du ekitaldi horretan eman beharreko laguntzen muga zein den eta eskabideak zein epe eta lekutan aurkeztu behar diren; ezinbestekoa izango da azken horien artean Industriaren Sustapen eta Birmoldaketarako Sozietatea (SPRI, S.A.) egotea. Onartutako inbertsioen nahiz aurrerakin itzulgarrien gehienezko kopurua Industria Berritzeko eta Garatzeko sailburuordearen urteko deialdian eguneratu ahal izango da, KPIak dituen aldaketak kontuan izatearren.

11. artikulua.– Eskabidea.

1.– Agindu honetan ezarritakoaren arabera aurreikusitako laguntzak jasotzeko baldintzak betetzen dituzten enpresek eskabidea eta gainerako agiri osagarriak deialdian adierazitako lekuetan aurkeztu beharko dituzte, laguntzak emateko aginpidea duen organoari zuzenduta, edo bestela Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legean aurreikusitako beste bideetatik igorriko dituzte, Industria Berritzeko eta Garatzeko sailburuordeak urteko deialdia egiteko ebazpenean finkatzen duen epean. Onuraduna izateko baldintzak diru-laguntza ordaindu arte irau beharko du.

2.– Industria Berritzeko eta Garatzeko sailburuordeak laguntzen deialdia egiteko ebazpena eman eta gero, eskabide-eredua eta formularioak Industriaren Sustapen eta Birmoldaketarako Sozietatean (SPRI, S.A.) eskuratu ahal izango dira, edo interneten, www.eragintza.net, helbidean.

3.– Eskabideak inbertsio-proiektua hasten den ekitaldi ekonomikoan aurkeztu beharko dira eta bertan ezin izango dira aurreko ekitaldietan egindako inbertsioak sartu, agindu honen 2. artikuluan adierazitako kasuan izan ezik.

12. artikulua.– Aurkeztu beharreko agiriak.

lización. En caso de superarse dicho límite, la ayuda concedida en virtud de esta Orden se minorará en la cantidad correspondiente al exceso.

CAPITULO III

PROCEDIMIENTO

Artículo 10.– Iniciación del procedimiento.

Las ayudas reguladas por esta Orden serán objeto de convocatoria pública anual y se otorgarán bajo los principios de publicidad, concurrencia y objetividad.

La convocatoria se realizará por el Viceconsejero de Innovación y Desarrollo Industrial y precisará el límite máximo de ayudas totales a conceder durante ese ejercicio, el plazo para la presentación de las solicitudes y los lugares para su presentación, debiéndose incluir necesariamente, entre estos a la Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A. (SPRI). El límite máximo, tanto de las inversiones admitidas como de los anticipos reintegrables, podrá ser actualizado en la convocatoria anual del Viceconsejero de Innovación y Desarrollo Industrial, con el objetivo de tener en consideración las variaciones del IPC.

Artículo 11.– Solicitud.

1.– Las empresas que, de conformidad con lo establecido en esta Orden, reúnan las condiciones para poder acceder a las ayudas previstas deberán presentar una solicitud y demás documentación complementaria, en los lugares señalados en la convocatoria, o en los especificados en la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, en el plazo que fije la resolución del Viceconsejero de Innovación y Desarrollo Industrial, de convocatoria anual, y estará dirigida al órgano competente para su concesión. La condición para poder ser beneficiaria habrá de mantenerse hasta el momento del abono de la subvención.

2.– Un modelo de solicitud y formularios será facilitado por la Sociedad para la Promoción y Reconversión Industrial, S.A. (SPRI), o podrá descargarse en la dirección de internet en www.eragintza.net, una vez efectuada la convocatoria de las ayudas mediante resolución del Viceconsejero de Innovación y Desarrollo Industrial.

3.– Las solicitudes deberán presentarse en el ejercicio económico en el que se inicie el proyecto de inversión y en las mismas no podrán incluirse las inversiones realizadas en ejercicios anteriores, con excepción del supuesto contemplado en el artículo 2 de la presente Orden.

Artículo 12.– Documentación a presentar.

1.– Enpresaren informazio orokorra bilduko duen eskabidea bete beharko du enpresa eskatzaileak, baita ondokoak ere:

a) Inbertsio-proiektuaren txosten zehatza, ezarpen-plana, plan ekonomiko-finantzarioa eta horiek gauzatzeko epeak bilduko dituen. Atzerriko sozietate baten erosketaren kasuan, beste enpresa batek egindako sozietate horren balorazioa aurkeztu beharko da, salerosketaren ondorioetarako.

Nolanahi ere, enpresa eskatzaileak txostena aurkeztu beharko du, proiektuak enpresak merkatuan duen posizioa, bere lehiakortasuna eta etorkizuneko bideragarritasuna indartzen dituela frogatzeko.

b) Enpresa eskatzailearen eta lagundutako ezarpenaren eratze-eskritura eta, hala badagokio, horren aldaketena.

c) Identifikazio Fiskaleko Txartelaren fotokopia.

d) Agiri horiekin batera eskatzailearen ahalordearen fotokopia aurkeztu beharko da, agiri hori Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak lehendik daukanean eta ahaldua lehengoa bera denean izan ezik.

e) Azken ekitaldiko kontu ikuskatuen kopia edo, halakorik ezean, Sozietateen gaineko Zergaren edo, hala badagokio, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azken bi aitorenak.

f) Euskal Autonomi Elkartearen aurrekontu orokorraren pentzutan diru-laguntzak eskuratu dituztenek zerga mailako obligazioak bete dituztela egiaztatzeari buruzko Ogasun eta Finantza sailburuaren 1991ko urriaren 7koa Aginduan ezarritakoa betetzen denean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak, betiere eskatzailearen berariazko baimenarekin, zuzenean eskatuko dizkiete zerga arloan eskudunak diren organoei laguntza eta diru-laguntzen onuradunek zerga betebeharrak bete dituztela ziurtatzen duten agiriak ematea; baimen hori espedientean jasota ez balego, eskatzaileek ekarri beharko lukete ziurtagiri hori espedientera.

g) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatearen ziurtagiria.

h) Jarraian adierazitako alderdiak egiazkoak izateari buruzko zinpeko adierazpena; ikuskatze-fasean egiaztatutako ahal izango dira horiek:

– Eskabidea aurkeztu zen aurreko ekitaldiko abenduaren 31n plantillan zegoen langile-kopurua, hil horretako TC2 agiria araberak.

– Fakturazio-kopurua eskabidea aurkeztu aurreko ekitaldiko abenduaren 31n.

– Urteko balantze orokorraren kopurua eskabidea aurkeztu aurreko ekitaldiko abenduaren 31n.

1.– La empresa solicitante deberá cumplimentar una solicitud, que deberá contener información general de la empresa, así como:

a) Memoria detallada del proyecto de inversión en la que se incluirá el plan de implantación, el económico-financiero y los plazos para su realización. Y, si se tratara de la adquisición de una sociedad extranjera deberá presentarse, igualmente, la valoración de dicha sociedad realizada por empresa ajena a la misma, a efectos de la operación de compraventa.

La empresa solicitante deberá aportar, en todo caso, memoria al objeto de demostrar que el proyecto refuerza su posición en el mercado, su competitividad y su viabilidad futura.

b) Escritura de Constitución de la empresa solicitante y de la implantación objeto de apoyo, y de sus modificaciones, en su caso.

c) Fotocopia de la Tarjeta de Identificación Fiscal.

d) Dicha documentación deberá ir acompañada de la fotocopia del poder de representación de la persona solicitante, excepto si obra en poder del Departamento de Industria, Comercio y Turismo, y no ha habido cambios.

e) Copia de las Cuentas Auditadas del último ejercicio, o en su defecto, las dos últimas declaraciones del Impuesto sobre Sociedades, o en su caso, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

f) Cuando se den los supuestos establecidos en la Orden de 7 de octubre de 1991, del Consejero de Hacienda y Finanzas, sobre acreditación del cumplimiento de obligaciones tributarias por los beneficiarios de subvenciones con cargo a los Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma de Euskadi, la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi, siempre que cuente con la autorización expresa del peticionario, solicitará directamente a los órganos competentes en materia tributaria la expedición de certificación acreditativa del cumplimiento de las obligaciones tributarias por los solicitantes de las ayudas y subvenciones; en el supuesto de que no constara en el expediente la citada autorización, son los solicitantes quienes deberán aportar el mencionado certificado.

g) Certificado de hallarse al corriente de sus obligaciones con la Seguridad Social.

h) Declaración jurada respecto a la veracidad de los siguientes aspectos, que se podrán comprobar en la fase de inspección:

– El número de trabajadores y trabajadoras en plantilla existente a 31 de Diciembre del ejercicio anterior al de la solicitud, según TC2 de este mes.

– La cifra de facturación a 31 de Diciembre del ejercicio anterior al de la solicitud.

– La cifra de su balance general anual a 31 de Diciembre del ejercicio anterior al de la solicitud.

– ETE ez den ezein enpresak edo enpresa batzuek elkarrekin enpresaren kapitalean zuzenean edo zeharka %25etik gorako partaidetzarik ez izatea.

– Inbertsio-proiektu berarentzat beste erakunde publiko edo pribatu batzuei eskatu eta/edo hauengandik jasotako laguntzak.

2.– Enpresa eskatzaileak zinpeko adierazpenean gezurrezko daturen bat jartzen badu, administrazio-zigorak eta zigor penalak ezarri ahal izango zaizkio, indarrean dagoen zigor-araubideari jarraituz.

